

Jon Ander De la Hoz Arregi

*Getaria,
Gipuzkoa
(1992)*

Aurkibidea

Biografia



1992an Getarian jaioa. Kazetaritza ikasi du Bilbon eta Artzape Getariako herri aldizkarian lan egiten du. Horrez gain, kirol kazetari gisa ere lan egin izan du Euskadi Irratian, arraun estropadetako esatari gisa. Kazetaritza du ofizio zein afizio. Kirolzalea ere bada eta triatloietan parte hartzen du.

Zintak

GET-033

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre Agoues, Libe
- **Data:** 2017-11-30
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Getaria, herri txikia

- **Erref:** GET-033/003
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:03:07. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Astean zehar eta asteburutan egiten dituztenak kontatzen ditu Jon Anderrek.

2. Getarian euskararik gabe bizitzerik bai?

- **Erref:** GET-033/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Herri euskalduna da Getaria, eta testuinguru euskaldun honek atzerritarrek ere euskara ikastera daramatza, batez ere ume eta gazteak.

3. Gaztelaniaz, ez guztiz eroso

- **Erref:** GET-033/007
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Ingurua guztiz euskalduna badu ere, urteekin gaztelaniaz hitz egitean geroz eta erosoago sentitzea lortu du Jon Anderrek.

4. Getariatik Zarautzera ikastera

- **Erref:** GET-033/009
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:07:47

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Batxillergoa egitera Zarautzera joan zen, kuadrillako askorekin batera. Horregaitik dio jauzia ez zela oso handia izan. </p>

Transkripzioa

- Hamasei... hamasei, bai. Kurso bakoitzian gu hamasei.
 - Bai, baiño danak edade berdiñekuak, ezta?
 - Bai, ehuneko larogeita hemeretziya bai.
 - Eta saltua haundia izan zan o...?
 - Ez, ez, ez. Ez, porke azkenian danok alkarrekin etorri giztin, eta kuadrillako... bai, igual bat gela batea, bestia beste gela batea... Ba gu Lizardira etorri giñanian, [juxtu] bost gela, bost gela ez zakiñat zenbat lagunekuak, ba, hogeit bat o? Ez zakiñat /etzakiñat/ zenbatekuak. Baiño hala´re, nahiz ta gelan alkarrekin ez eon, beti [...] getaiarren batekin o beti egongo [litxan] batenbatekin. Beraz, ez zitxon arazoikan, ta geo, gaiñera, ba, errekreotan ta bazkalorduan ta zea, ba, kuadrillakuakin. Ez, saltua... Errexa, errexa.
 - Ze ibiltzen ziñaten getaiarrak getaiarrakin gehio o, bueno, pixkat iriki ziñaten´e bai? [...] iriki edo, bueno, beste jendiakin sozializatzen ziñatela pentsatzen det, baiño...
 - Noski baietz! Bai, ondo eramaten giñuztenan, baiña azkenian gu herriyan ´e nola ibiltzen giñan alkarrekin, eta gure bizitza osua alkarrekin ibiltzen giñan, ba, errekreuan ere tendentzi hori bazitxonan. Geo, horrek ez din esan nahi gainontzekuakin gaixki eramaten giñanik, ezta gutxiyo´re.

5. Zaletasunak: kirola eta bertsoa

- **Erref:** GET-033/011
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:08:01. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kirola
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Kirolzalea da oso gaztetatik Jon Ander. Irakurtzea, musika eta bertso mundua ere gustatzen zaizkio. Bertso-eskolan aritu zen gazteagoa zenean.

6. Futbola baino, giroa nahiago

- **Erref:** GET-033/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Triatloian trebatzen ari da gaur egun Jon Ander, bigarrenkoa prestatzen. Bestela, arraunean urte mordoa ibili zen. Futbolarekin ere txikitatik izan du harremana, baina nahiago du futbola inguratzen duen giroa, kirola bera baino.

7. Triatloiak prestatzeko, diziplina

- **Erref:** GET-033/013
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:12:26. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

<p>Arraunean urte mordoa eman zuenez, kirolarekiko diziplina eta ohitura du aspalditik. Triatloiak prestatzeak askatasun handia ematen dio eta entrenamenduak egiteko malgutasuna.</p>

8. Arrauna, afizio eta lan

- **Erref:** GET-033/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kirola » Arrauna
- Lanbideak

Laburpena:

Arraunean ibili ondoren, irratan hasi zen arraunaren inguruan lanean.

9. Idazteko zaletasuna

- **Erref:** GET-033/016
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:16:46. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Herri aldizkarietan, Berrian eta Argian kolaboratzaile ere ibili izan da. Gaztetatik gustatu izan zaio idaztea eta egunkariekin harremana izatea.

10. Parrandan, Zarautzera

- **Erref:** GET-033/018
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Zumaia aldera jo beharrean, Zarautz aldera jotzen dute parrandara, ikastera, kiroldegira...</p>

Transkripzioa

- Ez. Lehen gehio zitxonan. Uan tabernak ere eskastu o geo gutxio zaben eta... ez. Igual... Iten dixkiñu /iteixkiñu/ azkenian, e? Ze azkenian zerbeza pixkat daon lekuan ta gu musika pixkatekin ondo moldatzen gaitun, baiña... baiña ez. Azkenian... edo gaztetxian´e bai o... baiño... baiño ez. Zarautzen. Normalian esaten deunian “Jo, parranda in bihar diu! – kuadrillan esaten deunian– Gaur parranda ingo diu” normalian Zarautza. O oso-oso gutxitan Donostira. Baiño normalian Zarautza etortzen gaitun, bai.

- Ta zuk zeba uste dezu Zarautzea etortzen zeatela, adibidez, Zumaira jun baiño gehio? Ere bai hemen ikasi dezuelako igual? Azkenian...

- Nik zumaiaarrakin harreman oso ona zakanat, baiña nik nere bizitzan gehidxo jo izan diñat Zarautza aldea, bai ikasketagatikan, bai zea... Baiño Zarautzen ikasi ez duenak ere nik uste diñat Zarautzea etortzeko ohitura dakenak, ze azkenian getaiarrak´e, ba, bueno, Zarautzakin erlaziyo gehidxo euki diñe...

- Bai, azkenian...

- Bai, bai. Azkenian, zapatak falta dixkiñula? Ba zeara, Zarautza; dentistanea Zarautza; ez zakiñat ze? ba, Zarautza; ikastea... Bai, bai. Kirola... askotan kiroldegira´re ni neu etortzen naun Zarautza, pizsina. Ni ta nere lagun asko. Futbolea Astira ta bat eta beste. Ta... Bai, bai.

- Hor, adibidez, Getaian kiroldegia badago?

- Bai.

- Ta pistina ta guzti daka o...?

- Ez, ez, horregatikan etortzen gaitun gu Zarautza. Baiño bai, kiroldegi polita zion, txiki xamarra. Eta Getaiko... Bueno, getaiarra, azkenian, ba, kirolian ez dabillena, arraunian dabillenak bere gimnasiyua zakan, arrauneko elkarteko lokalian. Berriz, beste batzuek nahio izaten diñe saltaka itea jun, ba, ez zakiñat, Zarautza, paseua. Paseua´re ear askua zeon. Eta, bueno, kiroldegira jun nahi duna kiroldegira juten den, baiño nola ez dan ikaragarri jende ibiltzen, ba, dan txikiyakin´e, ba, moldatzen dittun /moldatzentxun/ danak.

11. Getaria eta Bilbo, oso ezberdinak

- **Erref:** GET-033/020
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:23:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ikasketak direla medio, Gasteizen eta Bilbon bizi izan da. Euskararekiko kontzientzia hartzea ekarri zion Bilbon bizitzeak, eta harrezkeroztik lehen hitza euskaraz egiten saiatzen da.

12. Getarian, kalera egiteko joera

- **Erref:** GET-033/024
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Kalean egoteko ohitura handia dago Getarian, sozializazioa bertan gertatzen baita. Gaztetxea ere bilgune sendoa da herrian.

13. Getaria eta turismoa

- **Erref:** GET-033/025
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:30:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Herrian turismoa geroz eta handiagoa da, tartean, Valenciaga museoak duen ospeagatik, eta baita telesailetan eta filmetan herria agertu izanagatik ere.

14. Turismoa: aberastasuna eta arriskua

- **Erref:** GET-033/026
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:30:39. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Turismoak herrian jende mordoari ematen dio lana, baina Jon Anderren iritziz, neurriz eta tentuz ibili behar da turismoarekin, arriskutsua ere baitauka.

15. Itsasoko lana berriro zabaltzen ari da

- **Erref:** GET-033/028
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:32:11. **Bukatu:** 00:33:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Itsasoan lanean jende gutxiago dabil gaur egun, baina gazteek berriro ekin diote itsasoko lanean aritzeari.

16. Getariako jaiak

- **Erref:** GET-033/030
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:34:01. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Getariako jaiak aipatzen ditu Jon Anderrek pasarte honetan, orokorrak eta auzoetakoak.</p>

Transkripzioa

- Bai...
- Salbatoriak, San Antonak...
- San Antonak. Bi garrantzitsuenak hoiek. Geo, auzo bakoitzian´e bazauden, ez? San Prudentzion San Prudentzio jaiak, Askizun San Martinak, Mian San Ixidro uste diñat diala... uste diñat, bai. Eta... Baiño, bai. Ta auzoik garrantzitsuenak edo handidxenak behintzat Askizu ta zea. Ta aurten´e duatloi bat´e antolatu diñe ta beti eoten den festa ta mus txapelketa ta holako gauzak. Eta bertsolaiak´e bai San Prudentzion. Ta nik uste diñat... bai, ondo, ondo, festa politak diala. Eta ez igual salbadoretako... salbadoriak dakaen indarrakin, baiño bai, festa politak diala.
- Ya hor, salbatoretan zea iten da, desenbarkua ta konparsak´e bai ta...
- 2018dxan den zea, desenbarkua, Elkanona.
- Aber ta kontatu hori pixkat zer dan. Nik, zarautztarra izanda, badakit, baiño beste toki batzutan ez dakie.
- Bai, bueno, hor Elkanon "lehorreratzia" esaten den ofizialki, desenbarkua deitzen zakona, eta desenbarkuan, bueno, ba, ospatzen den, ospatu edo.... bai, gogora ekartzen den nola 1522yan, ba, Elkanok ba munduai buelta eman ta geo ta bere 17 tripulantiakin etorri zala ta bat eta beste. Eta antzezlan bezela oso polita den, hori dudaz kanpo zeon. Etortzen den ta barkuan bere hogeita bat [...kin] ta... Ez? Kañonazuak eta bat eta beste. Sartzen den barkua, danak erropa... halamoduz jantzita, itxura emanaz munduai buelta...
- Emanda.
- ... zatoztela. Ta poliki-poliki ta musika ezpezial batekin, ta zea ta, jo, oso... ba, bai, polita den, deigarriya den. Baiño... baiño bai... Lau urtian behin iten den ta jende dexente etortzen den egun hortan, jatetxiak ere nahiko beteta egoten dittun /egotentxun/ eta bat eta beste. Eta ondo. Azkenian getaiarrak ondo ezautzen diñun /ezautzeiñun/ festa bat den. Batzui gehio ikutzen zion barrua, bestiai ez hainbeste, baiña, bueno, bai, polita baden ikustekua.
- Parte hartzeko tentaziyoikan edo...?
- Ez.
- [...] o bai o ez o...?
- Hasteko, ezin detelako.
- Ez?
- Ez, hor iten diñe /iteiñe/ familiko... hamazazpi tripulantiana ematen den,

ba, bueno, semiai o illobai o... hola den, ez? Titularidadia zakan ertentzen dan horrek.

- Baiño nola garai hartako familitako...?

- Ez, ez. Hori izango den /izangoen/, ba, aurrenengo aldiz in zuenian /intzuenian/, gutxi gorabehera in zuenan senitartekuak o... uste diñat, e! ez pentsa, ez askoik fiatu.

- Osea, ez dala jun ta apuntatu.

- Ez, ez, ez, ez, ez. Ta geo iten ziñenan hor geo bost kontinentetako... Gero iten diñe aurrena itxasoko parte hori bezela eta gero berriz eleizan sartu ta eleizan meza bat eta ez zekiñat ze... amabirjiñai ofrenda-o ingo zione. Eta geo, bueno, aldatzen dittun /aldatzetxun/, jazten dittun /jartzetxun/ ondo ta Carlos I, Carlos V o ez zekiñat hoitako batei...

- [...]

- Bai, bai, "primero de España, quinto de Alemania" edo ez zekiñat, hura, uste diñat hura zala. Eta harei zea bat, bueno, ez zekiñat ze eskatzea o bere balentrian berri ematea o ez zekiñat ze. Eta hor bai iten lunan lehen herriko emakumeik ederrenak o aukeratu; behintzat bihartzakin aukeratzen ziñen. Nere ama atera lunan bere garaian, Ozeaniako... Osea, bost neska, kontinente bakoitzeko bat. Nere ama atera lunan Ozeania, bere garaian. Eta gaur egun aldatuta zion hori. Aldatu diñe oan dala... oan dala lau bat urte edo zortzi bat -ez zekiñat-, azkeneko bi alditan behintzat. Eta oan uste diñat zozketa iten duela. Baiño...

- Zozketa. Oseake, nahi duna apuntatzen da?

- Ez zekiñat apuntau ta dan eo zozketa iten diñen edade batetik edade batea bitarteko neska...

- Eta neskak bakarrikan, ezta?

- Bai, bai, bai, hori bai.

17. Sare sozialak eta hauen erabilera

- **Erref:** GET-033/032
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:39:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

Sare sozialak lanerako zein aisialdirako erabiltzen ditu.

18. Artzape euskara elkarteko lehendakari

- **Erref:** GET-033/034
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:40:03. **Bukatu:** 00:44:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Getariako euskara elkarteko lehendakaria da Jon Ander. Bertako aldizkarian dabil, nahiz sei urte atzera galzorian egon zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com